



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2009-06-16**

VIIURTEA 1.729 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Berrobikoek Altzokoei lekukoa pasa zioten unea, herenegungo festan. HITZA

## JENDETZA HURBILDU DA GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIEN FESTA HANDIRA

**BERROBI** San Andres eskolako irakasleak «oso pozik» daude herrian herenegun izandako giroarekin; «uste baino jende gehiago izan zen» 6



Errepide berria eraikiko duten lekuan jarri zuten lehen harria. I.T.

## Asuncionerako sarbide berria zazpi hilabete barru egongo da prest

**TOLOSA** Atzo egin zuten lehen harria jartzeko ekitaldia; 1,8 milioi euro jarriko ditu Aldundiak 3


## 142 lagunek hartu dute parte III. Mendi Martxan

**BEDAIO** Antolatzaileak «gustura» daude ekimenak izan duen «harrera onarekin» 7

Nafarroa hiribidea 6, 2.  
20400 - Tolosa  
943 65 35 90



**ehnelur**  
euskal Herriko nekazarren elkartasuna



Sutea, kazkabarra, tximista,  
animaliek eragindako kalteak...

**Baserria ondo babestuta  
al daukazu?**

- Baserriarako aseguru berezia preziorik onenean
- Baserriko aseguruetan adituak

aseguruenak / berriro sortzen 

**L** **Laburrak****Gaur, ikasturte amaierako kontzertua, Musika Eskolan**

**TOLOSA** ● Udala Musika Eskolako ikasleek, ikasturteari amaiera emateko, zenbait kontzertu eskainiko dituzte. Lehenahar izango da eta hurrengo, etzi. Biak ere Musika Eskolako Areto Nagusian izango dira, 19:30etik aurrera. Bessalde, bihar, lurreamendiko egoitzara joango dira.

**Bi aldiz lapurtzeagatik adingabe bat atxilotu dute**

**ALEGIA** ● Larraitz auzoan zegoen autokarabana batean lapurtu nahi izan zuen 16 urteko gazte batek eta ertzainek lapurretaren momentuan harrapatu zuten. Autokarabanan sartzeko leiho bat hautsi zuen gazteak eta dena hankaz gora utzi barruan. Gazteak leihoa hausterakoan hainbat zauri egin zituen eta medikuarengana eramane zuten hauek sendatzeko. Atzo, 12:00etan berriz ere gaztea autokarabana berean harrapatu zuten lapurretan. Kasu honetan ibilgailutik hartutako hainbat objektu zeramatzen zuten poltsa batean.

**Zalakain Gipuzkoako lehendabizikoa izan da Zarauzko Triatloian****ERREDAKZIOA**

Larunbatean, Codeam Zarauzko Triatloi Elkarteak antolatutako XXIII. Zarauzko Triatloia jokatu zen, eta bertan Atletico SS taldeko Egoitz Zalakain tolosarra Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen.

Eneko Llanos izan zen gizonenekoetan garaile eta emakumezkoetan, berriz, Ainhoa Murua zarauztarra izan zen helmugara iristen lehena. Guztira 500 korrikalarik hartu zuten parte, horietatik 20 emakumezkoak izan ziren.

Eskualdea ordezkatzuz, Mahala Tolosaldeko Triatloi Taldeko 17 kirolari bertan izan ziren. Baita Atletismo SS taldeko Aimar Agirresarobe ere.

**EAren Batzordeko gehiengoak Alkarbideren gogoetekin bat egin du**

**Tolosa** ● Udaleko hiru zinegotzitik bik EA uztea erabaki dute; alderdirik ordezkatu gabe karguarekin jarraituko dute.

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Eusko Alkartasuneko batzarreko afiliatuen gehiengoak Alkarbideren gogoeta eta aldarrikapenekin bat egitea erabaki du. Hala, Tolosako Udala osatzen duten hiru zinegotzitik bik alderdiz aldatuko dute, Andoni Iturzaeta eta Josemi Gomezek hain zuzen ere. Dena den, aurrerantzean ere zinegotzi kargua mantendu egingo dute, nahiz eta ez dute EA ordezkatzeko jarraituko.

«Hauteskuendean lortutako emaitza txarren» ostean, hausnarketa ezberdinak egiten hasi ziren alderdikoak, hauen arrazoiak zeintzuk ziren ondorioztatzeko. Andoni Iturzaeta zinegotziak eta Jabier Telleria Tolosako Batzordeko lehendakariak azaldu zuten, abertzalea, sozialdemokrata



Egindako agerraldian, ezker-eskubi: Antxon Gonzalez, Javier Telleria, Andoni Iturzaeta eta Josemi Gomez. REBEKA CALVO

eta demokrazian oinarritutako mugimendu politiko bat eratzearen aldeko apustu publikoa egiten dute. Eta ez dute bat egiten, EAko zuzendaritzak hartutako hainbat erabakirekin. Horien artean, «azkenaldiko erabaki estrategikoen,

eta zehazki, ezker abertzale erradikalarekin polo soberanista bat eratzeko asmoekin». Hauek, herriarren eta batez ere, beraien betiko hautesleen aldetzeaz bultzatu dutela uste dute. Baita, erakutsitako noraeza ideologikoak ere, ho-

nen ondorioz, hauteslegoak zigortu egin baititu.

Aurrerantzean, Alkarbidekoek, EAren sorrerako printzipioen gainean sustraitu nahi dute, «bereizki, beraien hautesleei alderdi hau ezezagun bihurtu zaienean».

**Tolosa-Ibarra taldeak irabazi du Beasainen, Gipuzkoako txapelketa**

**Xakea** ● Eskualdekako txapelketaren ostean, herenegun jokatu zen Gipuzkoako finala eta ibartarrak garaile izan ziren.

**ERREDAKZIOA**

Herenegun Kutxa Xake Topaketen finala jokatu zen Beasainen. Maiatzean Anoetako eskualdekoko joko bikaina erakutsi eta gero, itzaropentsu joan ziren Tolosa-Ibarra bi talde alebinak, gutxienez iazko hirugarren eta laugarren postua errepikatu nahian.

16 talde elkartu ziren finalean, Gipuzkoako eskualdekako gutzietatik sailkatuta. Kanporaketa bidez jokatu zen txapelketa, partida bakoitzeko jokalaririk bakoitzak 20 minutu erabili behar zituelarik. Gauzak ezin hobeto joan ziren A taldearentzat. Unai Mendizabal, Danel Intxaurren, Jone Mujika, Mikel Arechaga, Iñigo Puerta eta Igor Mendizabalek osatutako taldeak txapelketako lau kanporaketak irabazi zituen eta Kutxa Topaketetako txapelketa irabazi zuen.

B taldeak zorte txarra izan zuen pareketekin eta azken hiru kanporaketak irabazi zituen arren lehen kanporaketan iazko txapelketa narekin galdu ostean bederatzigarren postuan amaitu behar izan zuen. Dena dela, Oier Otxoa, Julen Martin, Asier Arozena, Aitana Eizaguirre, Ane Sanchez eta Yerai Corralek osatutako taldeak oso maila ona erakutsi zuen eta kanporaketa sistemarengatik ez balitz gorago geratuko zirela erakutsi zuten.



Tolosa-Ibarra xake jokalaririk gazteak, saria eskuetan dutela. HITZA

**H** **Hilberria****MILAGROS ARAIZTEGI ARANA**

(Olatz Lizarralde zinegotziaren ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu Olatz Lizarralde ezker abertzaleko zinegotziarekin eta bere sendiarekin.

IDIAZABAL  
2009ko  
ekainaren 16a

Idiazabalgo Ezker Abertzalea

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# Zazpi hilabete barru prest egongo da N-1etik Asuncionerako sarbide berria

## Azpiegiturak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1,8 milioi euro jarriko ditu proiektu hau gauzatu ahal izateko.

### INIGO TERRADILLOS

N-1 errepidetik Asuncion Klinikara sarrera berria egitea da Gipuzkoako Foru Aldundiak burutuko duen proiektuaren funtsa. Santa Luzia auzoan hasiko da bidea eta Izaskun auzora igotzeko klinikaren parean dagoen bidearekin bat egingo du. Zazpi hilabete barru erabilgarri izatea espero dute, eta behin amaituta, Izaskun auzora edota Asuncion klinikara joan ahalko da N-1 errepidetik, orain arte ez bezala, Tolosara sartu beharrik gabe.

800 metroko luzera izango du bideak, 3 metroko bi errail, %7ko luzera-malda, eta gehienez, 40 kilometro orduko abiaduran joan ahalko da. Bestalde, errepede zati berri honetaz gain, N-1eko lotune-adarra ere aldatuko dute. Hain zuzen ere, egungo galtzadaberrantolatzea aurreikusi dute, ezkererako biraketa duten bi errail sortuz: bat Santa Luzia auzorako sarrera



Erakundeetako ordezkariek, atzo, proiektuaren aurkezpenean. I.T.

emango duena, 25 metroko luzera eta 3 metroko zabalerarekin, eta bestea, Izaskunerako bide berriarekin lotuko duena, 20 metroko luzera eta 3 metroko zabalerarekin. Azken honen elkargunea kanalizatutako T baten bidez egingo da. Elkargunetik klinikarantz doan adarraren luzera 60 metrokoa izango da.

Obrak aurrera eramango diren hegalak, azterketa geoteknikoan jasotzen den bezala, hainbat luizi jasan ditu eta ur-filtrazio ugari aurrera erabiltzea aurreikusten dute, dreinatze-betetzak sortzeko eta lurzuri eutsiko zaion hormigoizko harri-lubeta hormekin. Hala, lanak aurrera eramateko

egin behar diren lur-mugimenduek 44.158,355 m<sup>3</sup>-ko indusketa bolumena suposatzen dute, ebakidura egonkorak ezponden bidez garatuko dira, eta ondoren, lehenneratu egingo dira lur begetala eta erreite hidraulikoa erabiliz.

## Aspaldiko beharra

Atzo eman zuten lanen berri lehen harria jartzeko erakundeetako ordezkariek egin zuten ekitaldian. Eneko Goia Errepideetako Azpiegituren foru diputatuak oso garrantzitsutzat jo zuen ekitaldia: «Lehen pausoa gaingitu dela esan nahi du horrek, hau da, proiektua eztabaidatzearena eta ados jartzearena, eta aurrera doala». Horretaz gain, «proiektu honetan egin dugun bezala, ingurugiroarekiko errespetuz jokatzeko jarraituko dugu Gipuzkoa modernoagoa eraikiz», esan zuen.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak Tolosaldeak aspaldi eskatzen zuten proiektua dela errepede hau egitearena azaldu zuen. «Urte asko dira errepede honen beharraz hitz egiten hasi zirela, eta horregatik, eskertu beharra dago ordutik parte hartu duten guztiak; horrela proiektuekin egingen du aurrera Gipuzkoak, hau da, herri guztiak

batzearekin». Bide berri honek erosotasuna emango diela Tolosaldeko herritarrei ere gehitu zuen Tolosako alkateak, eta «horregatik Foru Aldundiaren lana eskertu nahiko nuke eskualdeko herri guztien izenean». Halaber, Asuncion klinikari ekarriko dion hobekuntza ere azpimarratu nahi izan zuen Bildarratzek: «Etengabe ari dira lanean euren zerbitzua hobetzeko, eta bide berria ere aurrera-pausoa izango da».

## 800 metroko luzera izango du, hiru metroko bi errail eta %7ko luzera-malda

## Aspaldi ikusi zuten Tolosan nahiz eskualdean proiektu honen beharra

Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiak, bere aldetik, batez ere Tolosaldeko herri txikiak izango dela hobekuntza proiektu hau azpimarratu zuen: «Foru Aldundiak landa herrien hobekuntzarako lanean jarraituko du orain arte bezala, lurralde orekatuaren alde». Bestalde, gauden krisi egoera kontuan hartuta, «horrelako proiektuak aurrera eramane behar dira, lana sortzea suposatzen baitu beraz, ekonomiari laguntzeko inbertsio hauekin jarraituko dugu».

## Emaitza onak Tolosa CFko atletentzat Zaragozako Txapeketan

**Kirola** Irune Agirrezabalak, Andrea Maizak, Aitor Arraizak eta Patxi Elosegik hartu zuten parte bertan.

### ERREDAKZIOA

Atletismoko zerupeko Kadeteen Autonomien arteko Espainiako Txapelketa jokatu dute Zaragozan, eta bertan Euskadi ordezkatzen Tolosa CFko 4 kirolari izan dira. Emaitza onak lortu dituzte, gainera.

Irune Agirrezabalak bigarren egin du luzera jauzian, 5 metro eta 37 zentimetroko markarekin. Emaitza bikaina, beraz, hesietan ere nabarmentzen den atleta gazte honentzat.

Andrea Maiza, berriz, 16. postuan geratu zen disko jauztiketean, 17 metro eta 01 zentimetroekin. Aitor Arraizak hirugarren egin zuen pisu jauztiketean 13 metro eta 49 zentimetroekin. Azkenik, Patxi Elosegik zazpigarren egin zuen luzera jauzian, 5 metro eta 91 zentimetroko markarekin.



## Adinekoen Astean murgilduta

**GIZARTEA** Atzo hasi ziren Adinekoen Astearekin lurreamendi egoitzan. Goizeko txupinazoak eman zion hasiera festari, eta egunean zehar hainbat ekitaldi izan zituzten. Zuzendaria batzordeko kideekin bazkaria izan zuten, esaterako, eta bazkalostearen jokoak izan zituzten kafetegian, eta ondoren sariak ere banatu zituzten. Gaur goizean jarraituko du festak egoitzan; lehendabizi meza izango dute, ondoren hitzaldia Juncal Fernandezekin, eta arratsaldean txokolata hartuko dute. I.T.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgildun aulki elektrikoa salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 605 77 16 07  
■ **Kotxea.** Citroen Xsara TD. Ma-

trikula SS-BJ. MP3 eta aire egokitu. 3.000 euro. Interesatuak dei 634 43 40 62 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamara.** Argazki kamara digitala galduta zen ekainaren 13an, Iarunbata, Ibarren. Aurkitu duenak dei dezatela mesedez 635 73 36 46 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Joxe Gabirondo eta Arrate Garin, Gipuzkoako azkarrenak

**Zizurkil** » Gazteluerra eta legorretarra izan dira Azkartasuneko Segalari Txapelketa irabazi dutenak.

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo San Millan baserriko zelaietan jokatu zen herenegun Gipuzkoako Azkartasuneko Segalari Txapelketa. Gizezkoetan lehia estua ikusi zen lehen bien artean. Azkenean Joxe Gabirondo gazteluerra izan zen nagusi 4 minutu eta 13 segundoko denborarekin. Bigarren Juanjoxe Lizaso asteasuarra geratu zen 4 minutu eta 23 segundorekin. Denboraz azkarrogi bukatu zuen Lizasok, baina hogeitazko zigorra ezarri zioten txukuntasunean. Gabirondori berriz, zortzi segundoko ezarri zioten soilik. Hirugarren Bixente Mitxelena oiartzuarra izan zen 4 minutu eta 51 segundoko denborarekin.

Emakumezkoetan Arrate Garin legorretarra izan zen txapelduna 2 minutu eta 45 segundoko denborarekin. Duela bi urte ere bera izan zen txapeldun. Azpitxapelduna,

Josune Gorostidi gazteluerra izan zen 3 minutu eta 41 segundoko denborarekin.

Urtero bezala Ziotza kirol elkarte arduratu zen antolakuntzaz, eta herri kirol federazioak kontrolatu du txapelketa. Gizezkoetan hamabi segalari lehiatu ziren, hiru segalariko lau txandatan banatuta eta emakumezkoek txanda batean jardun zuten bi segalarik. Beste bat ere etortzeko zen baina azken orduan huts egin zuen. Antolatzaileek azaldu dutenez, 150 bat ikusle izan ziren txapelketa ikusten eta «giro bikaina» izan zen.

Azkartasuneko proba hau berezia da, sailak azkar eta txukun ebakitzea baita kontua. Gizezkoek 100 metro kuadroko bina sail ebaki zituzten. Emakumezkoek, aldiz, 35 metro kuadroko bina sail.

Gizezkoetan, lehen bi sailkatuez gaiz, eskualdeetik beste sei segalari ere aritu ziren: Andoni Goikotxea gazteluerra (laugarren), Mikel Alkorta asteasuarra (bosgarren), Jokin Etxeberria amasarra (seigarren), Arkaitz Arteaga baliarrindarra (bederatzigarren), Iñaki Lizaso asteasuarra (hamaikagarren) eta Pello Argia zizurkildarra (hamabigarren).



Joxe Gabirondo eta Arrate Garin podium txapelarekin. HITZA

## Herritarren mendi afizioa jasotzeko asmoa du Aizkardi elkarteak

### ERREDAKZIOA

Amasa-Villabonako herritarren mendi afizioaren inguruan argazki eta datu bilduma egiteko asmoetan dabilta Aizkardi Mendi Elkarteak. 1952tik 2009urte artekoak jaso nahi dituzte eta jardueraz ezberdinen berri jaso nahi dute: ibilaldiak, ezagututako tontorrak, eskalada, eskia, espeologia... Aizkardiok liburuxka batean argitaratu nahi dituzte datu eta argazkiak.

Argazki, diapositiba, informazio, bitxikeria eta beste edozein datu mota jasotzeko prest daude Aizkardiok. Uztailearen 16rako jaso nahi dute eta ondorengo bideak erabil daitezke: Aizkardi M.E.; Posta Kutxa 75; 20.150 Amasa-Villabona helbidera bidaliz, edo ostegunetik elkartean egoitzara joanez, Larrea Auzoa 18 B helbidea; edo 620 55 49 37 zenbakira deituz (Jabier edo Arantxa), noiz eta non jaso adosteko.

## Anoetako kirol ludotekan izena emateko epea hilaren 20an bukatzen da

### ERREDAKZIOA

Anoetako kirol ludotekan izena emateko epea hilaren 20an bukatzen da. Kirol ludoteka bost eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzendua dago. Bi hamabostaldi eskainiko dira. Lehenengoa uztailearen 1etik 15era eta bigarrena uztailearen 16tik 30era. Saioak egunero izango dira 10:00etatik 13:00etara. Hamabostaldi bakoitzak 35 euroko prezioa izango du.

Egunero ekintza ezberdinak egingo dituzte haurrek kirol ludotekan: jolasak, talde kirolak, patinaria, txangoak. Anoetako ingurune naturala, hondartzara irteera, igerilekura irteera...



Bi txirrindulari txapelketaren une batean. HITZA

## Patxi Cia eta Olatz Odriozola, Mendi Bizikletako txapeldunak

**Tolosa** » Euskal Herriko Txapelketa izan zen jokoan herenegun San Blas auzoan; 92 txirrindularik hartu zuten parte.

### ERREDAKZIOA

Mendikute elkarteak antolatutako Euskal Herriko Mendi Bizikleta Txapelketa jokatu zen herenegun Tolosako San Blas auzoan eta gizezkoen elite mailan Patxi Cia irabazi zuen eta emakumezkoetan Olatz Odriozolak. Patxi Ciaren atzetik Unai Yus eta Joseba Leon helmugaratu ziren. Iban Eskisabel Mendikute elkarte txirrindulari tolosarrak zorte txarra izan zuten, proba hasi eta berehalakatea hautsi baitzitzaion eta hiru minutu galdu zituen. Eskisabel 18. postuan iritsi zen.

Olatz Odriozolaren ondoren Ana Yunta eta Veronica Fernandez helmugaratu ziren. 23 urte azpikoetan Diego Latasa izan zen lehenengoa. Master 30 mailan Jose Luis Iñorbe eta beteteroetan Xabier Mendiarrak. Maila horretan laugarren izan zen Mendikute elkarte Ramon Lekuona. Jubeniletan Iñigo Gomez eta kadeteetan Jonathan Lastra izan ziren aurrenak.

Antolatzaileak «gustura» azaldu dira txapelketa nola joan den ikusita. Guztira 92 parte-hartzaile izan ziren. Maila bakoitzeko probak nahiko parekatuak eta borrokatuak izan ziren eta ikusle ugari izan ziren zirkuituan zehar. Antolatzaileek azaldu zuten, San Blaseko ibilbidea asko gustatzen zaie txirrindulariei: «Ia dena mendi ibilbidea da, igoera gogorrarekin eta jaitsiera teknikoarekin».

## Piraguismo ikastaroak emango ditu Kaxkardi elkarteak eskualdean

**Kirolak** » Txaraman eta Alegian emango dituzte ikastaroak Uda Kirola kanpainaren baitan, ekainetik abuztura.

egiten jakitea eta naturan kirola eginez lagun artean ondo pasatzeko gogoia izatea dira.

Eskualdean, data hauetan emango dituzte ikastaroak: ekainak 22tik 27ra Txaraman, goiz eta arratsalde; uztailek 13tik 18ra Txaraman; uztailek 20tik 25era Alegian goizez; eta abuztuak 17tik 22ra Txaraman goiz eta arratsalde.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko herriko kiroldegira jo daiteke, *kaxkardi@hotmail.com* helbidera mezu baidali edota telefono zerbaki hauetara deitu: 677 48 89 10 eta 636 63 86 35.

### ERREDAKZIOA

Urtero bezala, aurten ere Kaxkardi Kirol Elkarteak, Tolosaldeko eta Goierrialdeko Udalen babesarekin Uda Kirola kanpainan piraguismo ikastaroak antolatuko ditu. Astebeteko ikastaroak Txaraman eta Alegian gauzatuko dira.

Ikastaroetan parte hartzeko baldintza bakarrak 8 urte izatea, igeri



## Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:  
**Epergain**  
Eraikuntzak eta  
Promozioak, S.L.  
Eraikitzen du:  
**Aburuza**  
Eraikuntzak S.A.

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • [www.aburuza.com](http://www.aburuza.com)



## Oialde Txokoko denboraldiari agur

**LEITZA** • Leitzan asteburuero 12-16 urtetako gazteak bildu izan dira Oialde Txoko lokalean. Denboraldia bukatzeko begiraleek zenbait joku prestatu zituzten eta gurasoek berriz arratsaldekoa eskaini zieten. Gu-

raso arduradunak «oso pozik» gelditu dira aurtengo txandan gazteen parte-hartzearekin eta datorren neguan berriz irekitzeko asmoarekin bukatutzat eman dute aurtengo denboraldia. HITZA

## Luis Rojasen hitzaldiak itxi du Naturaldia

**Tolosa** » Txillida-Lekun jendetza bildu zen; elkartasunaren kontzeptuaren inguruan aritu zen psikiatra.

solosalidia. Elkartasuna pentsamendu baten eta portaera baten arteko batuketak dela seinaltatu zen, genetikoak eta areagotzen dihoana.

### Resiliencia kontzeptuaren inguruan

Resiliencia kontzeptua azaldu zuen, malgutasunaren eta erresistentziaren arteko gaitasuna, arazoei aurre egitea eta gainditzea. Bizitzeko motiboak izatearen eta besteie laguntzearen garrantziak ere aritu zen New Yorken bizi den psikiatra sevillarra. Danimarkako esatera batekin bukatu zuen hitzaldia: «Lainoek izkutatutako arren edo itsuek ez ikusi arren, zeruak ez du bere urdintasuna galtzen».

### ERREDAKZIOA

Tolosa Naturaldia bukatzeko, Luis Rojas Marcos psikiatrak hitzaldi interesgarria eskaini zuen pasaden larunbatean Txillida-lekuan.

Hain zuzen ere, elkartasunaren gaia aritu zen jendez betetako areto ederrean, Markel Olano ahal dun magusia eta Jesus Torquemada kazetariaren aurkezpenen ondoren. Hitz egitearen garrantzia azpimarratuz hasi zuen



## Leitzarrak literatur sarietan

**LEITZA** • Pasa den ostiralean Nafar Gobernuak euskaraz antolatutako zenbait lehiaketan sariak banatu zituen. Nafar Gobernuan egin zuten banaketa eta sariak Hezkuntzako Kontseilariak banatu zituen irudian). Leitzako irabazleak ere izan ziren: Joanes Illarregi, Martxel Intxausti, Mikel Lasarte Cia, Erleta eskolako laugarren mailako ikasle taldea eta Edurne Zabaleta Sasturain. HITZA



Jendetza bildu zen Txillida-Lekun, Rojasen hitzaldia entzuterako. JOXEMI SAIZAR

## Alurr dantza taldearen 'Sua' emanaldi arrakastatsua Gurean

**Villabona** » Aretoa betetzea lortu zuen Ibarako taldeak Dantza Astearen baitan antolaturiko emanaldian.



Gurea jendez bete zen Ibarako taldearen emanaldia ikusteko. JOXEMI SAIZAR

### ERREDAKZIOA

Ibarako Alurr dantza taldea laugarren aldiz aurkeztu zuen *Sua* ikuskizun berria pasa den ostiralean Villabonan, Dantza Astearren barruan. Emanaldi arrakastatsua izan zen, ikusle goak Gurea aretoa betetz eta antzokitik oso gustura ateraz.

Azaroan Tolosan eta urtarrean Ibaran aurkeztu ondoren, ekainaren 6an Balmasedan eskaini zuen ikuskizun hau eta, joan zen ostiralean, Villabonan, elementu berri batzuk sartuz. Eta ez da azken izango. Uda honetarako badi-

tuzte beste emanaldi batzuk hitzartuta: ekainaren 20an Lekeition, 24an Mungian eta uztailean 18an Seguran.

*Sua* emanaldiaz aparte, beste emanaldi batzuk ere baditu Alurr taldeak. Larunbatean dantzari txi-

kiek Tolosan dantzatu zuten. Hilaren 21ean euskal ezkontza egingo dute Lekeition, uztailean 9an Euskal Herria Zuzenean jaialdian izango dira, 14tik 19ra Isoire-n (Frantzia) eta abuztuaren 7an Bastidan.

## ATE IREKIEK JARDUNALDIA

EKAINAK 23 ARRATSALDEKO 7-12an

### 6OI MAILAKO NEHEKETA ZIKLOAK

- Nazioarteko Merkataritza
- Merkataritza-Industriak eta Merkataritza
- Administrazioa eta Finantza (D ereduak)
- Informazio-sistemak Administrazioan
- Jabetza-erria
- Dietetikak
- Ostatu Turistikoaren Eudaketa

### 8OI MAILAKO NEHEKETA ZIKLOAK

- Induskeria Administrazioa
- Sukaldaritza eta Gastronomia
- Ohiak, Gueziak eta Kontzerak
- Informatika-sistemak eta Sareak

### HASIERAKO LANBIDE PRESTABITZIANO PROGRAMAK (NLPP)

- Oinarriko Administrazio-prozesuak Laguntza
- Eliza Informatikoko Mantentze Lanak
- Sukaldaritza-zerbitzuak Laguntza



30 urte baino gehiago kalitateko prestakuntza eskaintzen  
Informazio gehiago: 943 314 900 telefonoan edo [www.cebanc.com-es](http://www.cebanc.com-es)



# «Jendetza izugarria» bildu da Eskola Txikien Festan

**Berrobi** » San Andres eskolako irakasleak pozik agertu dira herenegun herrian izandako giro «bikainarekin».

REBEKA CALVO

Aurpegi nekatu umoretsuak ziren atzokoan nagusi Berrobiko San Andres eskolako irakasle, guraso, ikasle ohi eta orokorrean, herritarren artean. Igandean jai eguna izan zuten Berrobin, izan ere bertan Gipuzkoako XXII. Eskola Txikien Festa ospatu zuten eta atzokoan dena txukun-txukun uzteko eguna zen. Irakasleek esandakoaren arabera, «uste baino jende gehiago» gerturatu zen igandean

herria. «Jendetza izugarria izan zen, honelako herri txiki batek jasotzeko jende kopuru nahikoa denok gustura eta batak besteari trabari gabe ibiltzeko», argitu dute irakasleek.

Gerturatutako jende andana, gainera, herrian xoxak uzteko askoarekin joan ziren eta hori «salmentetan ere nabaritu» zela diote eskolako irakasleek.

## «Merezi izan du»

Antolatutako ekintza guztiak «oso ondo» joan ziren, «bai antolaketa aldetik eta baita partaidetza, giro, bazkari eta salmeneten aldetik ere». Hau guztia posible egiteko, hala ere, asko izan ziren igandean lanean aritu ziren berrobitarrak; «gustura gelditu gara, merezi izan



Gipuzkoako 27 eskola txikietako ordezkariek izan ziren Berrobin. I. URRUTIA

du hain jai polita antolatzeak». Altzoko Imaz Bertsolaria eskolari egokitu zaio datorren urteko jai antolatzea, baina lasai egon ahal dira, Berrobiko eskola ahal duen guztian laguntzeko prest agertu baita.

Datorren urteko hitzordua iritsi aurretik ordea, eskerrak emateko garaia ere heldu da: «Bene-bentan eskerrak eman nahi dizkiegu ikasle, ikasle ohi, irakasle, irakasle ohi, guraso, gazte eta herritar guztiei, hain gogotsu aritu direlako eta guztion laguntzarik gabe horrelako festa ezingo litzatekeelako aurtera atera».

# Herrikideek ez dituzte Ina Zeberio eta 'Naparra' ahaztu

**Lizartza** » Asteburuan ekitaldi ugari izan dira Ina Zeberioaren erailketa zein 'Naparra' ren desagerketa gogoratzeko.

ERREDAKZIOA

Pasa berri den asteburu honetan urteurren mingotsak izan dituzte Lizartzan. Batetik, Ina Zeberioaren erailketaren XI. urteurrena izan da eta bestetik, Joxe Miel Etxeberria *Naparraren* desagertzearen

XXIX. urteurrena ere izan da. Zeberioaren erailketa gogoratze bere senideak Gernikan izan ziren larunbatean, izan ere ertzainek Bizkaiko herri honetan hil zuten etakide lizartzarra. Senideek lore eskaintza egin zuten lizartzarra hil zuteneko etxearen atariaren aurrealdean. Igandean herrian bertan egin zituzten ekitaldiak; mendi irteera izan zuten lehenik eta ondoren ekitaldia izan zen Zeberioaren monolitoaren aurrean. Bazkaria ere egin zuten, ondoren.

*Naparraren* desagertzea ere gogoratu zuten Lizartzan igandean. Familiaren baserrian egin zuten ekitaldia eta jende asko bildu zen bertan. Hitzordua apirilaren 18an desagertutako Jon Anza etakidearen kasua gogoratze ere baliatu zuten.



Zeberioaren lagun eta senideak Gernikan izan ziren larunbatean. BUSTURIALDEKO HITZA



*Naparrari* lore eskaintza egin zioten familiaren Lizartzako baserrian. I. URRUTIA



## Bukatu dira jairik gazteenak

**IBARRA** » Abuztuko jaien zain geratu dira Ibarren. Gazte Festak igandean amaitu zituzten, baina jada lanean ari dira herriko jaiak antolatzeko. Igandean Gazte Bazkaria izan zuten eta ondoren, dantzatzera atera ziren herriko plazara Kea ikuskizuna eskaintzeko. Hauen ondotik Loatzo Musika Eskolako emanaldia ere izan zen eta bukatzeko, Ze esatek! taldearen kontzertua izan zen Gaztetxean. I. URRUTIA



## Albizturko Udala

IRAGARKIA

Albizturko Plan Orokorra. Aurrerakina jendaurrean jartzea.

2009ko ekainaren 4an Udala honetan egindako Ohiko Osoko Bilkurak Albizturko Plan Orokorren Aurrerakina jendaurrean jartzea erabaki zuen. Honenbestez, jendaurrean jarrita egoteko epea irekitzen da, 3 hilabetez, egokiak irizten diren iradokizunak eta alternatibak aurkezteko, iragarki hau GIPUZKOAKO Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hala agintzen du ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, bere 90. artikuluan. Albizturren, 2009ko ekainaren 10ean

Brigida Arrue Larrarte  
ALKATEA



Paraje ederretaz gozatzeko aukera izan zuten ibiltariak (goian Balerdi). Bizikletarekin 32 lagun aritu ziren. Ibilaldia aurten gainera erraztu egin dute. HITZA

## III. Mendi Martxa lainoen gaineratik egin dute 142 lagunek, ibilbideaz gozatzuz

**Bedaio** » Artubi elkarteak auzotarren laguntzari eta gogoari esker egin dute antolakuntza handia behar duen ekimena.

### NEREA URBIZU

Aurten ere Bedaioakoak «pozik» daude Mendi Martxarekin eta BTT Martxarekin, bertan parte hartu dutenak bezala. Paraje ederretaz gozatzeko aukera izateaz gain, ia 150 lagunek bat egin zuten «oso harrera ona jaso zutela, atentzio handia bedaiotarren aldetik» esatean.

110 lagunek egin zuten mendi martxa, eta 32k bizikletako ibilbidea. Aurten aldaketa bat egin zuten oinezkoen bidea eta «erosoagoa» izan da, «ez hain gogorra.

Leku berdinetara iristen ziren mendizaleak, baina beste bide batetik, lauagoa zen bidetik, hain zuzen. Horregatik, bideaz gehiago gozatzeko aukera izan dute».

Sargori zegoen herenegun, baina bi une bereiztu dituzte bedaiotarrek: bata, lehen orduetako. Igotzeko garaian ondo joan ziren eta Artubiruntz joatean oskarbi zegoen. Behe-lainoa zegoen eta hodei maindire batekin inguruak estalita zeudela zirudien. «Ederra zegoen dena, oso sentsazio ona sentitu zuten hori ikusi zutenek, itsasoa ere ematen zuen eta».

Bigarren unea sargoriarena izan zen. Ibilbidearen azken ordutan (12:00ak aldera) somatu zuten ibiltariak. Basoan zeudenean «ondo» baina atera zirenean «hezetasuna eta beroa ikaragarria izan zen».

Badirudi, 07:00etan Alegian za-

parada eder bat bota zuela, baina Bedaion horren arrastorik ez zen iritsi, beraz, lehor zegoen, ibiltzeko apropos.

### Hirugarren urtez egin duen jendea eta jende berria ere bai

Gehienbat parte hartu zutenen artean gipuzkoarrak zeuden: Donostiakoak, Errenteriakoak, Pasaia, Ikaztegieta, Azkoitia, Ordiziakoak, Idiazabalgoak... «Mendi Martxa antolatzeko garaian laguntza eman duten hainbat enpresek publizitatea ere egin zuten eta bertako jendea etorri da, hori oso eskertzekoa da». Hauen artean hiru urtetan errepikatu duenik bazegoen, eta baita berriak ere.

Ibilaldia neurtua da, «baina helburua ez da lehen bailehen bukatzea; ez dago saririk lehenengoentzat ez horrelakorik. Neurtua da

guk geuk kontrolatzeko zenbat pasa diren, baten bat ez den iritsi ikusteko, kontrol gune hauetan edateko zerbait jartzeko»... Dena dela, bedaiotarrek kalkulatu zuten denboraren baitan iritsi ziren denak, 6-8 orduen baitan, hain zuzen. «Lau ordu eta erdi inguru behar izan zituzten batzuk, baina korrika joan ziren zatika». Bizikletan ibilbidea lau ordu inguruan egin zuten jendeak.

Frontoira iritsi ondoren, zozketak egin zituzten hainbat laguntzailek emandako produktuekin. «Honekin ere, jendeak asko gozatu zuten». Honez gain ere, hasieran hartutako txartela erakutsita txorixo pintxoak, haragi egosia, salda, odolkia, gazta zati bat eta edatekoa izan zuten parte hartu zutenek. Honen aurrean batek ondorengoa esateko beharra izan zuen: «Men-

di martxa asko egin ditut baina horrelako atentziarik ez dut inoiz jaso inon ere ez».

Bizikletaz ibili zirenek ibilbidearen hasieran lokatz pixka bat izan zuten, «baina oso tarte txikian: inguru horretan iturburutzat bat

### Oinezkoek, elkarteak aurreikusitako bezala, 6-8 orduen baitan bukatu zuten ibilaldia

### Bedaio guztiak egin zuten lana Artubi elkartearekin batera: aparkatzeko laguntza, sukaldan...

dago eta hezea egoten da. Bizikletaz egiteko ibilbidea gogorra da, pistaz ez baita, mendiz baizik, baina oso polita». Batzuetan trebetasun pixka bat eskatzen du tramo batzuk.

### Kexa bakarra, aparkatzeko komeriak

150 lagun inguru ibili ziren mendi martxan, horrek suposatzen duenarekin: bertara autoetan joan behar. Bedaio kaskora iritsi baino kilometro erdi lehenago jada autoak aparkatuta zeuden, kaminoaren baztarretan. Bedaio dauka ingurumen dotorez gain, elkarlanerako gogoia da eta honi esker izan zen posible martxa berri ere antolatzea. Bedaio guztiak egin zuten lana Artubi elkartearekin batera: autoak aparkatzeko laguntza, ibilbidea seinalatzen, mokadutxoak prestatzen, goizeko zazpietako kafea mendizaleei prestatzen...

Antolakuntza ona behar da halako ekitaldiak prestatzeko garaian eta Artubi elkarteak auzotarren lana txalotu eta eskertu nahi izan du. Antolakuntza txukumaren adierazle, jendearen erantzuna eta iritzia izan da.

### Laugarrena antolatuko dute?

Duela hiru urte antolatu zuten lehen aldiz mendi martxa, eta bizikletakoa duela bi. Aurtengo arrakasta eta harrera ona ikusita, Artubi elkartearekin serio hitz egin ez badute ere, zurrerik, Bedaio IV. Mendi Martxa izango dugu datoren urtean ere.

## Laburrak

### Gaur Intxurre elkartearen batzar berezia izango da

**ALEGIA** • Alegiako Intxurre elkartearen gaur bertan (hilak 16) batzar berezia egingo dute. 19:00etan hasiko da. Bilera honen berri ematen duten karteletan 19an izango dela jartzen du baina berez 16an da. Beraz, interesa duten horiek gaur izango dute hitzordua elkartearen. Lehena 19:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 19:30etik aurrera.

### Ostiralean odola emateko aukera izango da

**ALEGIA** • Datorren ostiralean, hilak 19, hain zuzen ere, Alegian odola emateko aukera izango da arratsaldean. Medikuek etxera gerturatu beharko da odola eman nahi duena, 19:00etatik aurrera eta 21:00ak arte. Bertara, beti bezala, Alegiakoak ez direnak ere joan daitezke ematera. Bukaeran, jateko zerbait banatzen dute ahul sentituz gero hartzeko.

### Herriko argazkiri zaharrenak ikusgai

**ALEGIA** • Alegiako jubilatuen tabernan hilabete honetan zehar herriko argazki zaharrak jarri dituzte ikusteko. Hauek herritarrek berriak utzitako argazkiak dira. Bilketari berezi bat egin zuten bere garaian eta *Garai bateko Alegia* eguna aitzakia izanik, garai hartako irudiak erakustea egokia izan zitekeela ikusi zuten. Asteartetik igandera bitarte izango dira.

### Finalean ariko den kadetea gaur erabakiko da

**PILOTA** • Gaur arratsaldean Hitza Txapelketako falta den kadeteen arteko finalerdia jokatuko da Bidaniako frontoian. Labaka eta Jaka ariko dira aurrez aurre 19:00etan. Larunbatean Azketak eta Ariztimuñok jokatu zuten eta Ariztimuñok 18-16 irabazi zuen. Beraz, finalean Ariztimuñok ariko da, gaur erabakiko den aurkariaren kontra aritzeko.

### Atzo hasi zituzten pilotalekuko obrak

**ALEGIA** • Atzo bertan Alegiako pilotalekuko obrak hasi zituzten. Obra honen helburua teilatua aldatzea eta paretak pintatzea izango da. Honen ondorioz, pilotalekua, gimnasioa eta aldagelak ezingo dira erabili. Uda igaro ondoren, irailaren erdialde edo bukaerara arte iraungo du obrak. Printzipioz, Kultur eta Kirol Etxeko instalazio guztiak normal erabili ahal izango dira.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Jai egitaraurako azal lehiaketa helduentzat eta haurrentzat (argazkia, marrazkia, pintura...). Gai: jaiak. 300 euroko saria. Lanak Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira.  
■ **Tolosa.** Uxola literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia 18:00etan Kultur Etxean.  
■ **Tolosa.** Lizardi konpainian eskoletari gisa atera nahi duten neskek deitu telefono hauetara: 600 244693 edo 686 405932.  
■ **Tolosa.** Musika udalekuak Eduardo Mokoroa udal musika eskolan ekainaren 29tik uztailearen 10era, 9:30etik 13:30era, 4 eta 12 urte artekoentzat; jolasak, dantzaldiak, kontzertu didaktikoak, abesbatza, gimnastika... Izen-earmtea, musika eskolan.

### Irteerak

■ **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatu du Bizi nahi jubilatutako elkarteak. Bazkaria Oiarzunen. Izen-ematea, elkartean 28 eurotan (ez bazkideek, 30 euro).  
■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteak Laredora irteera antolatu du ekainaren 18rako: 7:45ean abiatu, gosaria Sidreria de Liendo jatetxean, enpresa baten aurkezpena, bista gidatua, hondartza, bazkaria, oparia eta dantzaldia. Izen-ematea, elkartean.  
■ **Zizurkil.** Santanderrera hilaren 30rako irteera antolatu Elizpe jubilatutako elkarteak. Izen-ematea, 23tik 25era, 16:00etatik 18:00etara, 28 eurotan.

### Erakusketak

■ **Hermialde.** Sahararrak, herri bat erbestean Ander gillenea argazkilaria erakusketara ikusgai Ostautuan, uztailearen 13ra arte. Tindoufeko errefuxiatu eremuan ateratako argazkiak dira.  
■ **Tolosa.** Lopez Tolosaren margolanak K-2 tabernan (Plaza Berria).  
■ **Tolosa.** Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren erakusketaren irekiera Aranburu Jauregian, bertan izango da ekainak 27 arte.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritziaren erantzunik.



Erakusketan helduek zein haurrek egindako lanak ikus daitezke. I. GARCIA

Villabonako arte tailerren egindako lanak ikusgai daude aste honetan Gurea aretoko erakusgelan. bertan ikus daitezke Helga Massetaniren gidaritzapean aritu diren 60 ikasleek egindako obrak.

# Margotutakoa erakusten

### ERREDAKZIOA

**A**rte tailerren egindako lanen erakusketara inauguratu zuten atzo Villabonako Gurea aretoko erakusgelan. Ostirala arte, egun hau barne, 17:00etatik 20:00etara izango da ikusgai erakusketak. Guztira 60 ikasle inguru izan dira Helga Massetani irakaslearekin pintura ikasten, hiru talde helduena eta bost haurrena osatuz. «Bakoitzak gutxienez bi lan jarri ditu erakusketan», azaltzen du irakasleak.

Inauguraziora jende dezente agertu zen. «Oso polita dago», entzuten zitzaien erakusketara joandakoei. Aurten lan askoz gehiago jarri dira ikusgai, ikasle gehiago

izan baitira. Iaz helduetan zein haurretan tade bakarra zegoen. Dirudienez, ahoaz-ahok funtzionatu du eta aurtengo ikasturtean askoz gehiago izan dira izena eman dutenak.

Massetanik azaldu duenez, aurtengo ikasturtean ikasteko modua aldatu egin du: «Ez zait asko gustatzen zerbait kopiatzearen teknika. Aurten ariketak egin ditugu, koloreen inguruan ere ikasi dugu, artearen historiari buruz ere. Ez da izan denborapasa moduko bat. Ikasleak margotzera etorri dira». Eta erakusketan ikusten denaren arabera, gustura aritu dira adin guztietako ikasleak ariketa horiek egiten. Emaizak ikusgai daude.



Ikusmina sortu du erakusketak eta jende dezente izan zen inaugurazioan. I.G.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak